

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Zabarte Beitia

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1922-2009)*

Aurkibidea



Biografia



Udala auzoko Ozaeta baserrian jaio zen 1922an. Aita Ozaetako bertakoa zuen eta ama Aramaioko Oletakoa. Hamaika anai-arreba ziren. Auzoko eskolan hasi zen sei urterekin. Hamaika urterekin Amorebieta-Etxanoko Karmeliten ikastetxera joan zen, baina gerrak eten zituen Patxiren ikasketak. Gerra denboran Pio Azkarateren okindegiko ogiak banatzen zituen Arrasaten. Gero basoan, Zerrajeran eta Roneon egin zuen lan. Erratzuko (Baztan) Pilar Irigoienekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuten.

Zintak

ARR-087

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-07-10
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Auzoko eskolan eta Zornotzako karmelitetan

- **Erref:** ARR-087/002
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Auzoko eskolan ibili zen. 11urterekin Zornotzako karmeliten kolegiara joan zen urte bi eta erditan. Gerrak bere ikasketa sasoia eten zuen.

2. Don Javier Belazadi abade-maisua

- **Erref:** ARR-087/004
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Javier Belazadi abade zarautarra izan zen bere maisua auzoko eskolan. Abade ona zela dio. Nazionalistekin gudari ibili zen. 2-3 urtez kartzelan egon zen. Handik eta hemendik ibili ostean Txilera joan zen. Hainbat kontu kontatzen ditu.

3. Fraideetan euskara eta latina ikasgai

- **Erref:** ARR-087/007
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:06:43. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolan ikasitakoa fraideetara joaterakoan dena ahaztu zitzaioa dio. Fraideetan latina eta euskara baino ez zuten ikasten. Tolosako maistra bat izan zuten auzoko eskolan.

4. Gerra sasoian, dena apurtuta

- **Erref:** ARR-087/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian dena apurtu zuten: eliza, eskola... Beraien etxea ere jo zuten. Senitarteko batzuk kalera joan ziren (bera tarteko) eta beste batzuk bertan gelditu ziren. Geroago, Elorriora egin zuten alde. 7 hilabete iraun zuen gerrateak.

5. Errepublikazaleak etxean

- **Erref:** ARR-087/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Errepublikazaleak bere etxean egon ziren. Gorriak eta erreketek non egon ziren azaltzen du. Auzoko guztiak Bizkaira bidali zituzten, eta etxearekin gelditu ziren. Gerratik bueltan, etxera bueltatu zirenean, dena hondatuta aurkitu zuten.

6. Gerra ostean etxean hutsik

- **Erref:** ARR-087/010
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra aurretik bost-sei idi zituzten etxean. Idiak mantendu zituzten gerra sasoian Elorriora eraman zituztelako, baina behorra ez, behorra galdu egin zuten. Gauza guztiak ostu zizkioten etxetik.

7. Ganadua auzotarren laguntzaz babestu

- **Erref:** ARR-087/013
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Artzainek ere alde egin zuten: Bilbo aldera, Karrantzara... Ganadua auzotarrek lagunduta eraman zuten Elorriora.

8. Ogi-banatzaille lanetan

- **Erref:** ARR-087/016
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:15:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra sasoian, aita eta bera kalean egon ziren. Aitak Pio Azkarateren okindegian egiten zuen lan orduan, eta bera ere bertan aritu zen ogia banatzen.

9. Zerrajeran lanean

- **Erref:** ARR-087/018
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:18:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

<p>Gerra ostean etxera bueltatu eta 16 urterekin Zerrajeran hasi zen lanean. Zerrajeran egiten zuen lana azaltzen du. Bederatzi urtez aritu zen bertan lanean.</p>

10. Basoko lanetan 15 urtez; ostean Roneon; eta, azkenik, Zerrajeran

- **Erref:** ARR-087/019
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:01. **Bukatu:** 00:21:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Zerrajeran aritu eta gero 15 urtez basoan aritu zen lanean. Gero Roneon hasi zen lanean postu ezberdinetan. Roneo txarto egon zenean Zerrajerara bueltatu zen.

11. Zerrajeran granadak egiten; Arrasateri eraso egin ziotenekoa

- **Erref:** ARR-087/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:21:34. **Bukatu:** 00:23:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Zerrajeran granadak egiten zituzten: 10.5 eta 7.5 tamainakoak. Zerrajerari eraso egiten saiatu arren, inoiz ez zuten lortu. Erasoak hasterakoan, kanpaiak jo eta babeslekura joaten ziren arineketan. Kontzesioko komentua zegoen Guardia Zibilen kuartel ondoan, eta kanoikadaz egin zioten eraso.

12. Eskola berria eraiki zutenekoa

- **Erref:** ARR-087/024
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Eskola apurtu eta berria eraikitzeke gorabehera asko egon ziren. Orduan gertatutakoa kontatzen du, sasoi hartan alkatetzan egon ziren batzuk eta bestela partu hartu zuten batzuk aipatuz.

13. Sakristau lanetan; mezak latinez

- **Erref:** ARR-087/028
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:34:13. **Bukatu:** 00:35:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Sakristau lanetan ibili izan da urte askoan. Bere aita ere izan zen. Bost urte zituela hasi zen abadeari laguntzen. Orduko mezak latinez izaten ziren.

14. San Esteban eguna

- **Erref:** ARR-087/030
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:36:15. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

"Heladeruak" izotza saltzen zuen eta San Esteban egunean goizez abadeak limonada egiten zuen. Elur-zuloan izaten zuten izotza eta astoz ekartzen zuten. Hamaiketan meza izaten zen. Bolalekua ere egoten zen Bi taberna eta bolalekua zeuden. Gonbidatuak izaten zituzten etxean, ganbaran egin behar izaten zuten lo.

15. Auzolana

- **Erref:** ARR-087/033
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzolanean bideak konpontzen zituzten. Zelan konpontzen zituzten azaltzen du: abereen laguntzarekin.

16. Abadeek ez zuten askorik irauten bertan

- **Erref:** ARR-087/035
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:44:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Urte berri egunean auzoak 18 ogerleko eman zizkion sakristau zela maiordomoarekin batera. Txandan zen maiordomoa. Abadeak beraien etxean egoten ziren apopilo. Abadeek ez zuten denbora asko irauten bertan, erreperiderik ez zegoelako.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com